

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 6/2021 Foru Dekretua, otsailaren 16koa. Onestea honako honen aldaketa: 7/2008 Foru Dekretua, otsailaren 5ekoa, ondasun higiezinaren gaineko zerga dela-eta Higiezinaren Katastroan eraikin berrien alta xedatuko duten arauak aldatzen dituen

Higiezinaren Katastroaren arloan egiten ari diren erreformaren azken helburua da jabetza erregistroetako eta Katastroko base grafikoaren arteko koordinazioa lortzea, horretarako dauden elementu teknologikoak erabiliz.

Horrela, aldaketa honen xedea da Arabako Lurralde Historikoan kokatutako eraikuntza berri baten sustatzaileak aurkeztu behar duen dokumentazioa osatzea eta zehaztea, obra amaierako lan topografiko bat aurkezteko eskatuz. Lan horren bidez, eraikuntza berriko hiri higiezinak Arabako Lurralde Historikoko katastroan jasoko dira, behar den zehaztasunarekin eta errealtatearekin bat etorritik.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak horri buruz emandako txostenak ikusi dira.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Otsailaren 5eko 7/2008 Foru Dekretua aldatzea, zeinaren bidez aldatu baitziren Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako Higiezinaren Katastroan eraikin berrien alta arautuko duten arauak

Bat. 1. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da idatzita:

"1. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak

1. Arabako Lurralde Historikoan kokatutako eraikuntza berri baten sustatzaileak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du Foru Aldundian:

a) Eraikuntza berriaren eta kokatuta dagoen lurzatiaren obra amaierako lan topografikoa 3Dn. Lan horien zehaztapenak Foru Dekretu honen I. Eranskinean daude jasota.

b) Dauden solairuen planoak.

c) Altxaeren planoak eta sekzio bertikal bat.

d) Eraikuntzan erabili diren materialen memoria.

e) Jabetza horizontalaren banaketa proiektua, agiri publikoan gauzatu beharrekoa. Proiektu horrek honako datu hauek jaso beharko ditu: garaje edo aparkalekutarako zenbat solairu utziko diren, baita bulegotarako ere, eta eremu komunak eta independenteak zein izango diren, eta horiek guztiek, unitateka, erabilera horietarako eremu guztian zein partaidetza izango duten.

f) Kasuan kasuko udalaren hirigintza baimenaren kopia.

g) Babes Ofizialeko Etxebizitzaren behin-behineko Kalifikazioaren kopia, hala badagokio.

2. Aurreko apartatuko a), b) eta c) letretan jasotako agiriak formatu bektorialean (dwg, dxf edo dgn fitxategiak) aurkeztu behar dira. Nahi izanez gero, SHP bektore formatuan ere aurkeztu ahal izango da, eta kopia paperean erantsi."

Bi. 6. artikulua 2. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“2. Dokumentazio hori sustatzailearen eskura jarri beharko da Ogasun Zuzendaritzako Udal Zerga eta Katastro Zerbitzuan, gehienez ere 20 egun balioduneko epean, foru dekretu honen 1. artikuluan aipatzen den dokumentazioa aurkeztu zenetik zenbatzen hasita.

Aurkeztutako dokumentazioan akatsen bat antzemanaz gero, eskatzaileei jakinaraziko zaie, aurreko paragrafoan ezarritako epea eten egingo da, eta akatsa zuzendu ondoren, berriz hasiko da epea zenbatzen.”

Hiru. I. eranskina gehitzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“I. ERANSKINA

1. XEDEA.

Nahitaez bete beharreko zehaztapen hauen helburua da Arabako Lurralde Historikoko Katastroko Base Grafikoa eta Hiri Base Topografikoa (HBT) eguneratzeko jarraitu beharreko prozedura teknikoa ezartzea; horrela, eraikuntza berriko hiri elementuak aipatutako base geografiko horien parte izango dira, dagokien zehaztasunarekin eta berezko ezaugarriekin.

Lan topografikoak 3 dimentsiotan bildu beharko ditu eskatutako eskalan irudika daitezkeen elementu guztiak, eranskin honen 3.3 puntuan definitutako sinbologiaren eta datu ereduaren arabera. Arreta berezia jarriko da eraikuntza berriaren xehetasun guztietan (ataripeak, arkupeak, mehelinak, etab.), lurzatiaren elementu mugatzaileetan (itxiturak, hormak, hesiak, etab.) eta lurzatian dauden zerbitzu sareen elementuetan (kutxatilak, farolak, etab.).

2. APLIKAZIO EREMUA.

Foru dekretu honetako 2. artikuluko a) apartatua zehaztutako eraikuntza berriko obra guztiak, Arabako Lurralde Historikoan egiten direnak.

Jarduerak hiriguneetan egiten badira, lan topografikoak lurzati edo azpilurzati osoa hartuko du.

Landa eremuen kasuan, eraikuntza berria eta obrek aldatutako lurzatiaren edo azpilurzatiaren eremua baino ez dira jasoko.

3. BALDINTZATEKNIKOAK.

3.1. ERREFERENTZIA ETA IRUDIKAPEN SISTEMAK.

- ETRS89 erreferentzia sistema geodesikoa erabiliko da, honako hauetan soilik oinarrituta: Euskadiko GNSS sareko estazioen eta IGNko estazioen erpinak; IGNren sare geodesikoaren REGENTE eta ROI erpinak; AFAREN sareko erpin geodesikoak eta AFAREN RURT erpinak. Herri-guneak RURT bat badu, emandako datuak horrekin bat datozela ziurtatuko da.

- Kartografia ofizialerako irudikapen sistema laua ETRS 89/UTM 30N koordinatuen erreferentzia sistema da. (EPSG 25830).

- Altitudeen erreferentzia gisa Alacanten itsasoak duen batez besteko maila hartuko da. Sistema IGNren eta AFAREN Zehaztasun Handiko Nibelazio Sarean oinarrituta dago.

3.2. OHARREN BALDINTZAK.

- Lan topografikoek 3 dimentsiotan definituta egon beharko dute.

- Lan topografikoan erabili beharreko metodologiak beti bermatuko du 1:500 eskalako kartografiari eskatzen zaion zehaztasuna.

- Topografia klasikoaren araberako behaketen kasuan, ikuslerro bakoitzerako gutxienez honako hauek erregistratuko dira: instrumentuaren altuera, prismaren altuera, irakurketa horizontala, irakurketa bertikala eta distantzia geometrikoaren irakurketa lineala.

- GPS behaketen kasuan, puntu bakoitzeko behaketen fitxategiak ere jasoko dira.

3.3. ERABILI BEHARREKO DATUEN SINBOLOGIA ETA EREDUA.

Datuak AFAREN hiri kartografia ofizialaren (HBT) antolaketaren, kodifikazioaren eta sinbologiaren arabera jaso eta irudikatuko dira. www.araba.eus web orrian, HBTko hazi fitxategi bat dxf formatuan deskargatu daiteke, bai eta erabili beharreko HBT datu ereduaren definizioa zehazten duen bestelako dokumentazioa ere.

3.4. ZEHAZTASUNA.

Irudikapen eskala 1:500 da. Irudikatu beharreko elementuen zehaztasunak planoaren haute-mate grafikoaren berdina edo txikiagoa izan behar du. Lurrean ondo definitutako puntuetarako, zehaztaperen hori 0,2 mm-koa izango da, eskalaren izendatzailearekin biderkatuta.

– Planimetria: $RMSE \leq 0,10$ m.

– Altimetria: $RMSE \leq 0,10$ m.

4. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

• Lana deskribatzen duen memoria (metodologia, erabilitako abiapuntuko datuak, landa datuak, kalkulu txostenak, lanaren xehetasunak, etab.).

• Informazio grafikoa formatu bektorialean aurkeztu beharko da (dwg, dxf edo dgn fitxategiak). Nahi izanez gero, SHP bektore formatuan ere aurkeztu ahal izango da, eta paperezko kopia bat erantsi.

Marrazketa unitateak honako hauek izango dira:

– Unitate nagusiak: metroak.

– Unitate osagarriak: zentimetroak.

AZKEN XEDAPENA

ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 16a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA